



Patxi Zubizarreta - Elena Odriozola

3. Lehen musuak



—USOA, HEMEN AL ZAUDE?

—Ozen galdezka sartu zen Irati nesken komunean—. Ongi al zaude?

—Bai, hemen nago eta ongi nago —murmurikatu zuen Usoak. Haur

denboran ikusitako gertakari batzuek, entzundako oihu batzuek oraindik ere min egiten zioten bihotzean, eta igerilekutik heldu zitzaizkion zaratek kokildurik utzi zuten.

—Kezkatu egin naiz eta balekibale (BHP: badaezpada ere) etorri naiz zure bila —jarraitu zuen Iratik—. Baina orain goazen ferafutro kanpora, badago zerikusirik eta...

Eta Usoak bonbatik tiratu, eta Iratiarekin batera irten zen kanpora. Igerilekuaren ondoan lau mutil begiak igurtzi eta igurtzi ari ziren, eta haiekin sorosle gihartsua, taldeko bost begiraleak eta Manex ikusi zituen Usoak.

—Ikustekoa izan da —argitu zion Iratik—. Mutilak uretan jostatzear aspertu direnean, bainatu gabe zegoen Manex inguratu, eta «Gabardina uretarako ez al da ba?» esaka, harrapatu egin dute. Manexek zaldi hezigabe eta basatia ematen zue, baina itxuraz hura hezi, eta igerileku bazterreraino eramatea lortu dutenean, halako batean sirena hots ikaragarri bat entzun da. Batzuek diote burrunba Manexen bizkar zorrotik bertatik irten dela, baina kontua da mutilak zer egin ez zekitela geratu direla. Orduan Manexek gabardinatik spray bat atera du eta aurpegira bota die. Haien aienean! Hortik aurrerakoa erraza da imajinatzen...

Eta izan ere erraza zen imajinatzen: Manex begiraleei erasoaren berri ematen ari zitzairen eta nabarmendu egin nahi zuen sprayak ez zuela batere kalterik eragiten, eta mutilei une batetik bestera kenduko zitzaizela aurpegiko gorritasuna. Erasotzaileak, oster, erasotuak sentitzen ziren eta kalapita berealdikoa zen.

—Ferafutro —esan zuen azkenik Iratik, handik aurrerakoa ere imajinatzen erraza bailitzan. Eta gerizpe egoki baten bila joan ziren, bazkaltzeko eta eszena ikusten jarraitzeko.

—Apoarmatu —jarraitu zuen Usoak.

—Amiamoko —ekin zuen Iratik hegan zebilen zikoina bat seinalatzearekin batera.

—Espektatiba —Usoak.

—Sordies —Iratik..

—Ferafutro —amore eman zuen Usoak.

Eta igaro ere eguna ferafutro igaro zen eta, konturatzerako, suaren inguruan eseririk zeuden. Horratx Usoak, besteak beste, irrikatua zuen unea. Eta begiraleek hurrengo egunetarako plana azaldu ostean, zenbait jolas egin zituzten elkarren izenak ikasteko. Gero, amaiera aldean, kantuan hasi aurretik Zoriontasunaren Trena izeneko jolasera jostatu ziren.

Sarak Usoa hautatu zuen hainbat gazterekin batera, eta toki bazter batera eraman zituen. Han zain egon beharra zeukaten, eta bitartean besteen tren bati buruzko kantu bat eta gero haien irri karkailak, irri asaldagarriak entzuten zituzten. Halako batean, Usoaren txanda heldu zen eta neska sutondora eraman zuten. Gazte batzuek lerro bat osatzen zuten eta Usoari trenera igotzeko eskatu zioten, hau da, lerroko azkenekoari bizkarretik heltzeko. Eta trena —eta lerroa— martxan hasi zen, eta trenaren kantua abestu zuten harik eta, norbaitek txistu eginik, trena gelditu zen arte. Jolasa zentzugabe samarra zen, eta futsgabea, eta Usoa, ordu arte urduri samar, lasaitu egin zen: trena gelditzen zenean, lerro buruan zihoanak bi musu ematen zizkion bere atzekoari, eta honek atzekoari, eta hala, musurik musu, Usoa ere bereen zain egon zen. Baina berak aurpegi irribarretsua inuzenteki aurreratu zuenean, aurrekoak ustekabeaz zaplasteko bat eman zion eta ikusleak barre zantzoka lehertu ziren. Hurrengoari Usoak berak eman beharko zion zaplastekoa.

—Kanpamenduan beste era bateko musuko espero nituen —esan zion gero, lozakuan sarturik, Usoak Iratiri.

—Oraindik hasi baino ez da egin —amaitu zuen Iratik.

Gero kanpamenduko mutilei buruz hitz egin zuten, eta kanpamenduak pizten zizkien espektatibez, beldurrik gabe, izan ere Manex ez baitzen dendara azaldu ere egin. Eta nekatu zirenean, elkarri gabon opatu ostean, pentsakor geratu ziren loa etorri bitartean. Eta Irati bere gurasoekin gogoratu zen. Eta Usoa ere lagunaren gurasoekin gogoratu zen, eta bereekin, hangoekin eta hemengoekin, eta Bixintxorekin. Eta egun hartan %50 zoriontsu izan zela pentsatu zuen, zeren Usoak, egunaren amaieran, zoriona ehunekoetan zenbatzeko usadioa baitzuen, eta hurrengo egunetan askoz ere zoriontsuago izatea espero zuela.

Nekaturik egon arren, bi lagunei kosatu egin zitzairen lokartzea. Egun bakar bat igaro bazen ere, gauza asko gertatu zitzaizkiela sentitzen zuten, gauza asko gertatzear zegoela. Baina noizbait ere lokartu ziren eta Manex artean dendara etorri gabe zegoen...

